



## PRENTSARAKO OHARRA

18/10/16

### **Interes-gatazkei eta Bateriaezintasunei buruzko Foru Arau Proiektuak Batzarretako tramitazioagaz jarraitzen dau, 21 zuzenketa-eske onetsi eta gero**

Interes-gatazkei eta Bateriaezintasunei buruzko Foru Arau Proiektuak beste izapide bat gainditu dau gaur Batzar Nagusietan, Batzarretako taldeek aurkeztutako 134 zuzenketa-eskeak eztabaidatu eta gero. Iraskunde, Gobernamentu Onerako eta Gardentasunerako Batzordeak aurrerago egingo dan osoko batean onesteko prest itzi dau testu barria, 21 zuzenketa-eske sartu eta gero. Horreetatik 2 Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek batera aurkeztutakoak dira, beste bi EH Bilduk aurkeztutakoak, 7 Podemos Bizkaia taldearenak eta 3 Talde Popularrarenak.

Zerrenda horri, EH Bilduk eta Podemos Bizkaiak –2 EH Bilduk eta 5 Podemos Bizkaiak– Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeakaz adostu dituen 7 zuzenketa-eske transakzional gehitu behar jakoz. Bidean, oposizioak osoko saiorako erreserbau dituan ehun zuzenketa-eske baino gehiago geratu dira.

Batzarretako taldeen arabera, eta Foru Gobernuaren beharra eusten daben talde bietatik hasita, Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek zuzenketa-eske 2 aurkeztu ditue; EH Bilduk 24; Podemos Bizkaiak 69 zuzenketa-eske aurkeztu ditu; eta, bukatzeko, Talde Popularrak, 19 zuzenketa-eske. Talde Mistoak, barriz, ez dau zuzenketa-eskerik aurkeztu.

Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek, ohiko zuzenketa-eske biren bitartez bultzatutako aldaketen artean honeek dagoz: Foru Araua indarrean sartu eta 12 hilebeteko epean, Jokabide Gidaliburuak egitea; indarrean sartu eta 6 hilebeteko epean Foru Aldundiak aurrera eroan beharreko politika publikoen plangintzarako, ebaluazinarako eta hobekuntzarako tresnak definidutea; eta Aldundiko goi karguek aurretik euren Currículum Vitaeak aurkeztea.

Oposizio taldeen aldetik, Podemos Bizkaia izan da aldeko eretxi gehien jaso dituana, aurkeztu dituan zuzenketa-eskeetatik 7 onetsi diralako. Taldeak planteetan dituan aldaketen artean, “interes-gatazkak eta bateraezinasunak, Aldundiko kargu publikoak kargutik kendu aurretik, une horretan eta ostean planteau daitekezan balizkoak” identifiketea dago.

Horrez gain, Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeakaz adostu dauen zuzenketa-eske transakzional baten bitartez, oso zehapen larriak eta larriak Bizkaiko Foru Aldundiaren esku dagoen Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Gardentasunaren Atarian argitaratzea onetsi da, arau haustea egin daben personen izenak eta egindako arau haustea adierazoz.

EH Bilduren zuzenketa-eskeen artean, Aldundiko kargu publiko bakoitxak bere jokabidea egokitu beharreko printzipio etikoen artean bizikidetzea, alkartasuna eta errespetua

egotea be badago. Horrez gain artikulua berean gehitu dauenez, kargu publikoen “behar bakarria, interes publikoa eta Bizkaiko herritarren interes orokorra betetea izango da”.

Beste alde batetik, Talde Popularrak, Foru Gobernuko taldeen aldeko botoa lortu dau bere hiru zuzenketa-esketan. Bultzatu dituan aldaketen artean, foru arauan aurreikusitako kargutik kentzearen ostean konpentsazioa jasoteko eskubidea galtzea azpimarratu behar da.

Batzordeko eztabaidea bukatu ostean, Interes-gatazkei eta Bateriaezintasunei buruzko Foru Arau Proiektua Bizkaiko Batzar Nagusietako Osokora eroango da. Ezelango zuzenketa-eskerik aurkeztu ez dauen Talde Mistoak izan ezik, EH Bilduk, Podemos Bizkaiak eta Talde Popularrak, euren zuzenketa-eske guztiak osoko saiorako erreserbetan dituela adierazo dabe.

## DEIADAR MENDIAK

Aurretik, Iraskunde, Gobernamentu Onerako eta Gardentasunerako Batzordeak Talde Mistoaren Arauz Besteko Proposamen bat eztabaidatu dau, “Bizkaiko bost deiadar-mendietako tontorretan edo horreen hurreko inguruan Batzar Nagusietarako deiaren ohitura gogoratuazoteko oroigarriren bat jarteko aukerea aztertzeko”.

EH Bildu taldeak osoko zuzenketa-eskea aurkeztu dau, Foru Aldundiari eskaria eginez, “deiadar-mendiak izenagaz ezagutzen diran bost tontorren jatorria identifiketea eta zehaztea” lortuko dauen azterlana egin daian, erakunde biek “erespide moduan erabili daien, aitatutako deiadar-mendien inguruan egiten dituen erreferentzia guztietan”.

Halanda be, zuzenketa-eskea ez danez onetsi, jatorrizko proposamena izan da bozkatu dana. Azkenean, gobernu taldea osatzen daben taldeek, EH Bilduk eta Podemos Bizkaiak ez dabe onetsi. Talde Popularra abstenidu egin da.

Juan Otermin batzordekide sozialistak eta Jon Atutxa bozeroale jeltzaleak bertan egon diranei gogoratuazo deusienez, Bizkaiko Batzar Nagusiek, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Galdameseko Udalak onetsitako lankidetzarako protokoloari esker, Antonio Trueba kronistaren figura balioan jarteaz gain, deiadar-mendietara igotzeko tradizioan sakondu ahal izango da.

NOTA DE PRENSA

16/10/18

## **El Proyecto de Norma Foral de Conflicto de Intereses e Incompatibilidades sigue su tramitación parlamentaria tras aprobarse 21 enmiendas**

El Proyecto de Norma Foral de Conflicto de Intereses e Incompatibilidades ha pasado hoy en las Juntas Generales un nuevo trámite parlamentario tras debatirse las 134 enmiendas presentadas por los grupos junteros. La Comisión de Institucional, Buen Gobierno y Transparencia ha dejado listo para su aprobación, en un próximo pleno, un nuevo texto con la incorporación de 21 enmiendas de las que 2 son conjuntas de los grupos Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos; 2 son de EH Bildu; 7 del grupo Podemos Bizkaia; y 3 del Grupo Popular.

A este listado hay que sumarle 7 enmiendas transaccionales que EH Bildu y Podemos Bizkaia -2 EH Bildu y 5 Podemos Bizkaia- han acordado con Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos. En el camino se quedan más de un centenar de enmiendas que han sido reservadas por la oposición para la sesión plenaria.

Por grupos junteros, y empezando por las dos formaciones que sustentan la labor del Gobierno foral, los grupos Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos habían presentado 2 enmiendas; el grupo EH Bildu, 24; el grupo Podemos Bizkaia, 69; y el Grupo Popular entregó 19 enmiendas. El Grupo Mixto, por el contrario, no ha presentado ninguna enmienda.

Entre las modificaciones impulsadas por los grupos Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos a través de dos enmiendas ordinarias está la elaboración, en un plazo de 12 meses desde la entrada en vigor de la Norma Foral, de Guías de Conducta; definir, 6 meses después de la entrada en vigor, los instrumentos de planificación, evaluación y mejora de políticas públicas a desarrollar por parte de la Diputación Foral; y la entrega con carácter previo, por parte de los altos cargos forales, de su Currículum Vitae.

Por parte de los grupos de la oposición, Podemos Bizkaia ha sido el que más apoyos ha logrado al haber sido aceptadas 7 de sus enmiendas. Entre las modificaciones que plantea, está la identificación de “aquellos supuestos en que los conflictos de interés e incompatibilidades se puedan plantear antes, durante y después del cese de los cargos públicos forales”.

Además, a través de una enmienda transaccional, Nacionalistas Vascos, Socialistas Vascos y Podemos Bizkaia han aprobado que las sanciones muy graves y graves sean publicadas en el Boletín Oficial de Bizkaia de la Diputación Foral de Bizkaia y en el Portal de Transparencia con el nombre de las personas infractoras y la infracción cometida.

Entre las enmiendas de EH Bildu destaca la adición de la convivencia, la solidaridad y el respeto como aquellos principios éticos a los que deberán adecuar su conducta cada cargo público foral. Asimismo en el mismo artículo han añadido que los cargos públicos

“trabajarán solamente persiguiendo el objetivo de cumplir con el interés público y en favor del interés general de la ciudadanía de Bizkaia”.

Por otra parte, Grupo Popular ha logrado el apoyo de los grupos del Gobierno Foral en tres de sus enmiendas. Entre las modificaciones que han impulsado destaca la pérdida del derecho a percibir la compensación tras el cese prevista en la norma foral.

Finalizado su debate en Comisión el Proyecto de Norma Foral de Conflicto de Intereses e Incompatibilidades será llevado al Pleno de las Juntas Generales de Bizkaia. A excepción del Grupo Mixto- que no ha presentado ninguna-, tanto EH Bildu como Podemos Bizkaia y el Grupo Popular han manifestado hoy que reservan todas sus enmiendas para la sesión plenaria.

## MONTES BOCINEROS

Previamente la Comisión Institucional, Buen Gobierno ha debatido una Proposición No de Norma en la que el Grupo Mixto instaba a la Diputación Foral a “a estudiar la posibilidad de ubicar en las cimas bocineras, o en su entorno inmediato, un monolito recordatorio de la tradición de convocatoria de las Juntas Generales desde las mismas”.

A este respecto EH Bildu ha presentado una enmienda a la totalidad en la que instaba a la Diputación Foral a realizar un estudio que logre “identificar y concretar el origen de las cinco cimas conocidas como Montes Bocineros” para que ambas instituciones “lo empleen como criterio en toda referencia que realicen a dichos Montes Bocineros”.

No obstante al no ser aceptada la enmienda, ha sido la propuesta original la que ha sido sometida a votación. Ésta finalmente ha sido rechazada por los grupos que conforman el equipo de gobierno, por EH Bildu y por Podemos Bizkaia. Grupo Popular ha optado por la abstención.

Tanto el apoderado socialista Juan Otermin, como el portavoz nacionalista Jon Atutxa, han recordado a los allí presentes que el protocolo de colaboración adoptado por las Juntas Generales de Bizkaia, Diputación Foral de Bizkaia y el Ayuntamiento de Galdames permitirá, no solo poner en valor la figura del cronista Antonio Trueba, sino de profundizar en la tradición de la subida a los Montes Bocineros.